

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Elizalde kontseilariak Nafarroako Toki Administrazioa Aldatzeko lege-proiektua defendatu du Parlamentuan

*Toki-erakundeen %60 baino gehiagok onartu zuten testua pasa den  
ekainean*

Ostirala, 2019.eko urtarrilak 11

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioaren kontseilari Isabel Elizalde Nafarroako Toki Administrazioa Aldatzeko Foru Legearen proiektua defendatu du Nafarroako Parlamentuan, gaur ostiraleko osoko bilkuran, eta UPN, PSN eta PP alderdiek aurkeztutako guztien gaineko zuzenketak eztabaidatu dituzte.

Elizalde honela gogoratu du: "duela hamarkada batzuetatik hona, Nafarroako indar politiko ezberdinek eta Udalek Toki Administrazioa berrantolatzekeo prozesua egin beharra ikusi dute, eskumenak eta tokiko lekua ordenatze aldera, Nafarroako lurralde-eremu ezberdinen arteko desoreka murriztuaz eta herritarrentzako zerbitzuen estaldura hobetuaz".

Hitzaldian, kontseilariak ondorengo azpimarratu du: "proiektua Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformaren inguruko hiru urtetik gorako hausnarketaren eta eztabaidaren emaitza da; bertan, toki-erakundeek, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa buru izanik, nahiz Nafarroako Gobernuako departamentu ezberdinek parte hartu dute; baita ere, gaian adituak diren profesionalek, sindikatuak eta toki-administrazioaren eremu ezberdinetako langile-taldeak". "Argi genuen jarraitu du- erreforma horretan protagonismoa Udalek behar zutela, eta horrela izan da. Testu hau 2015eko abenduan abian jarritako parte-hartze prozesu luzearen amaiera da".

Halaber, Elizalde gehitu du toki-erakundeen %60a baino gehiagok testua onartu zutela pasa den ekainean, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren batzar batean. "Lehen aldiz toki-erakundeek proiektu bat bozkatu dute Ganbara honetan eztabaidatua izan baino lehen". Horrez gain, proiektuak Nafarroako Kontseiluaren txostenaren bermea du, ordenamendu juridikoaren arabera dela esan baitu.

Kontseilariak alderdi politiko guztiak gonbidatu ditu erreformaren ondorengo faseetan parte hartzera; izan ere, beharrezkoa izango da lege gehiago onartzea finantzaketa ezartzeko, eskualde bakoitzaren osasuna zehazteko eta bestelako araudi-aldaketak onartzeko. "Legea definitu eta idazterakoan, protagonistak Udalak izango dira, horrela ezartzen baitu gaur eztabaidatzen dugun lege-proiektuan. Baina Udalek ez ezik, interes politiko partikularra medio alde batera geratzea erabaki duten alderdi politikoek ere sartu eta hurrengo testuen definizioan parte hartu ahal izango dute. Soilik jarrera eraikitzailea izateko eskatzen diegu", amaitu du.

## **Lurralde-oreka**

Tokiko berrantolaketaren bidez, pixkanaka-pixkanaka murriztu egin nahi da Nafarroako zona ezberdinen arteko desoreka. Modu berean, tokiko gobernuari behar adinako antolamendu-baliabideak eta baliabide ekonomikoak eman nahi zaizkio, administrazio gisa duen papera erabat betetzearren. Horrez gain, tokiko zerbitzuen estaldura eta kalitatea areagotu nahi ditu, subsidiarioritasun-printzipioan oinarrituta; hau da, zerbitzu bakoitza herritarrengandik ahalik eta gertuenen dagoen erakundeak ematea, betiere behar bezala ematea bermatzen bada.

Tokiko mapa aldatzeaz gain, testuan eskumenen antolaketa jorratzen da, eta finantzaketa berriaren oinarriak proposatzen dira, hartzen dituzten eskumenek behar adinako zuzkidura ekonomikoa izateko segurtasuna izan dezaten toki-erakundeek.

Proiektuan Udalak toki-administrazioaren erdian kokatzen dira. Horiek egungo eskumenak izango lituzkete, haien Udaletako egitura administratiboak erabiltzea errazteko legezko bidea irekitzearekin batera. Halaber, administrazio bakoitzaren eskumenen katalogoa ezartzen du, finantzaketa-sistema berrirako oinarriak finkatzeaz gain.

## **12 eskualde**

Tokiko plantari dagokionean, proiektuaren berritasun nagusia da Nafarroa 12 eskualdetan banatzen duela, eta eskualde horietan sartuko dira zerbitzuen egungo mankomunitate sektorialak, Zerbitzu Administratiboan Elkartek eta udalerriaz gaindiko bestelako erakundeak; hots, guztira ehun baino gehiago. Modu horretan, udalerriez gaindiko erakundeen gehiegizko ugaritzearekin amaitu nahi da, horrek sakabanatzea, disfuntzioa eta eraginkortasunik eza ekartzen baitu.

Eskualde berriek bost eskumen izango dituzte: altako uraren hornidura; hondakin solidoen kudeaketa udalerriaz gaindiko eremuan; gizarte-zerbitzuak, eskualdeko lurraldearen plangintza eta antolamendua; eta idazkaritza eta kontu-hartzailatza eskatutako kopurua baino biztanle gutxiagoko toki-erakundeetan.

Bigarren artikulua bitartez, toki-erakundeen finantzaketa-sistema berritzen da, eta, beraz, hainbat artikulutan aldatzen du Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea; gainera, lurraldearen egitura berrira egokituko da. Nafarroako zerga-bilketaren kopuru zehatz bat erreserbatu beharko da toki finantzaketarako, eta Toki Ogasunen Funtsaren banaketa-irizpideak berritzeko proposamena egiten du.

Azkenik, hirugarren artikulua Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Nafarroako Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legea arinki aldatzen du, eskualde-mailako katastro-balorazioaren gaineko txostenak egin ahal izateko.